# KUL TUR AGENDA



Aitzoain
Añezkar
Artika
Ballariain
Berriobeiti
Berriogoiti
Elkarte
Larrageta
Lotza
Oteitza

# BE RRIO BEI TI

**Azaleko argazkiak:** Pickleball, ate zabaleko eguna (01-27 eta 02-3); Gazte ateraldia bolatokira (02-17); Etxarri Aranazko abesbatza (02-24); “Onin eta antzerkiaren misterioa” (11-02); “La fábula de la ardilla” (02-4)

AYUNTAMIENTO BERRIOPLANO
BERRIOBEITIKO UDALA

Edita: Ayuntamiento de Berrioplano
D.L: NA 253-2015
Difusión gratuita

Casa de Cultura
MARIADEMAEZTU
Kultur Etxea

Editorea: Berriobeitiko Udala
Doako zabalpena

## ›› OHARRAK

**PUNTUALTASUNA**
Ikuskizuna hasi ondoren, ezin izanen da inor aretoan sartu.

**SOINU-SEINALEAK**
Aretoan sartzerakoan deskonektatu beharko dira.

**GRABAKETAK ETA ARGAZKIAK**
Debekatuta daude.

**JANARIAK ETA EDARIAK**
Aktoreek eta ikusleek merezi duten begiruneagatik, barne-ikuskizunetan ezin izanen da jan, ezta edan ere.

**ITZULTZEAK**
Sarrera bat erosteko ordaindutako dirua itzultzeko arrazoi bakarra ikuskizuna bertan behera uztea izanen da.

**SARRERAK**
Zenbakidun sarrerak.

## ›› TXARTEL SALMENTA

Ikuskizunetarako txartelak María de Maeztu Kultur Etxean erosten ahalko dira **emanaldi bakoitzaren aurreko astean. Ez da telefono bidezko erreserbarik onartuko**.

NAFARROAKO ANTZOKI SAREA

**LEIHATILAN**
(Kultur Etxeko Atezaindegian). Ikuskizun bakoitza hasi aurreko ordubete lehenagotik.

**ALDEZ AURRETIK**
**www.berrioplano.es** webgunean eta Kultur Etxeko atezaindegian, 16:00etatik 21:00etara.

## ›› KULTUR EKIPAMENDUA

**KULTURA ZERBITZUA**
Udaletxean **Tel:** 948 30 31 29
**Posta elektronikoa:**
cultura@berrioplano.es

**MARIA DE MAEZTU KULTUR ETXEA**
Iturribidea, 1. Artika.
**Tel:** 948 38 32 54
**Kafetegi-Taberna**
**Tel:** 948 78 31 57

**EUSKARA ZERBITZUA**
Udaletxean
**Tel:** 948303129 / 634515384
**Posta elektronikoa:**
euskara@berriobeiti.eus

**KIROLA ETA GAZTERIA ZERBITZUA**
Udaletxean **Tel:** 948 30 31 29
**Posta elektronikoa:**
deporteyjuventud@berrioplano.es

**LIBURUTEGI PUBLIKOA**
Maria de Maeztu Kultur Etxean
**Neguko ordutegia:**
14:00etatik 20:00etara
**Tel:** 948 38 26 22
**Posta elektronikoa:**
bibliarc@cfnavarra.es

**ERABILERA ANITZEKO ERAIKINA**
**BERRIOBEITI**
Nuestra Señora de la Purificación, 11.
**Ordutegia:**
10:00etatik 22:00etara.
**Tel:** 948 91 04 23
(kafetegi-taberna)

**ARTIGUNE I**
**ARTIKA** Leonor Akitaniakoa, 30
**Informazioa:**
948 30 31 29

**ARTIGUNE II**
**ARTIKA** Leonor Akitaniakoa, 26
**Informazioa:**
948 30 31 29

**ORREAGA MUSIKA ESKOLAKO PATRONATUA**
María de Maeztu Kultur Etxea
**Tel:** 616 72 52 18
**Posta elektronikoa:**
orreagamusika@gmail.com

**KONTZEJU ETXEAK**

**AITZOAIN**
Oronsuspe auzoa, 3

**AÑEZKAR**
San Andres, 6
**Tel:** 618 77 84 61

**ARTIKA**
Kontzeju Etxea San Marcial, 9
**Tel:** 948 38 37 93
"María Domínguez" Gizarte-Etxea María Domínguez, 3
**Tel:** 948 38 37 93

**BALLARIAIN**
San Pedro, z/g

**BERRIOGOITI**
Santa Eulalia, 39
**Posta elektronikoa:**
concejoberriosuso@yahoo.es

**BERRIOBEITI** Kale Nagusia, 2

**ELKARTE** Purificación, 16

**LARRAGETA**
San Esteban, z/g
**Posta elektronikoa:**
concejo.larragueta@gmail.com

**LOTZA** San Joan, z/g
**Tel:** 690 68 68 50

**OTEITZA** San Joan, 6
**Tel:** 651 65 83 14

## ›› LEKU HUTSAK  UDAL IKASTAROAK 2. LAUHILEKOA

**IZEN-EMATEA** /
YOGA, PILATES eta ZUMBA




Ekiozu urte berriari mugimenduan eta begiratu ea zer taldetan dagoen lekurik eta prezioak udal webean. Lekuak izen-ematearen hurrenkerarern arabera banatuko dira, leku hutsak bete arte.

**Jarduera aldia:**
2. lauhilekoa, otsailetik maiatzera (biak barne)
**Izen-ematea:**
948 012 012 012 /
012 – Infolocal
Urtarrilaren 24an, 25ean eta 26an erroldatuentzat, eta, 29an, ez-erroldatuentzat

## ›› LIBURUTEGIA

**ORDUTEGIA**

Zerbitzuak: liburuak eta ikus-entzunezkoak mailegutan uztea; aldizkariak eta eguneroko egunkariak; internet eta posta elektronikoa; arreta eta aholkularitza uneoro. Artikako liburutegi publikoa Nafarroako Liburutegi Publikoen Sarean dago sartuta, eta katalogoa **www.navarra.es** webean dago kontsultagai.

**María de Maeztu Kultur Etxea (Artika)**
**Neguko ordutegia:**
14:00-20:00
**bibliarc@navarra.es**
**948 38 26 22**



## ›› LIBURUTEGIA ETXEAN BEREAN

**MUGIKORTASUN MURRIZTUKO LAGUNENTZAT**

Berriobeitiko herrietan bizi diren lagunentzat, Nafarroako Liburutegi Publikoetako erabiltzaile txartela eta mugikortasun murriztua izanez gero.

**Eskaerak**
**bibliarc@navarra.es**
**948 38 26 22**
(14:00-20:00)

## 12 OSTIRALA

**IPUIN-KONTALARIA** (euskaraz)

VENTURA RUIZ



**Artikako Liburutegi Publikoa**
**Ordua:** 18:00
**Publikoa:** 4 urtetik gora
**Sarrera:** doakoa, baina gonbidapena behar da. Urtarrilaren 11tik (osteguna) banatuko dira liburutegi ordutegian

## Urtarrilak 15 - Otsailak 11

**ERAKUSKETA**

### "Pachamama"

ATENA FUNDAZIOA1

Ikusgai daude 3 urtetik 69ra bitarteko ezgaitu intelektualek Atena Fundazioaren urteko tailerrean egindako lanak. Aurten, helburua gure *Ama Lurra* irudikatzea izan da, *Pachamama*, hots, errespetuaz eta elkarrekikotasunaz mintzo zaigun jainkosa. Kolore biziak eta indartsuak erabiliz, gizakiek *Ama Lurra*ri suntsitzen dizkioten elementuak, galera horretaz ohartu gabe.

**María de Maeztu Kultur Etxea (Artika)**
**Non:** erakusketa gela
**Ordutegia:** astelehenetik ostiralera, 16:00etatik 21:00etara, eta asteburuetan, berriz, Kultur etxean jarduerarik dagoenean



## 15 ASTELEHENA

**KAFE TERTULIA**

### Zure seme-alabak D ereduan matrikulatzea, zuk euskaraz jakin ala ez?

PAULA KASARES

Paula Kasares doktorea da soziolinguistikan, eta, bereziki, haurren hizkuntza-sozializazioa izan du ikergai. Saioan informazioa emanen zaie seme-alabak D ereduan eskolatuko edo matrikulatu berri dituzten gurasoei.

**María Domínguez Gizarte Etxea (Artika Berri)**
**Ordua:** 17:00
**Jarduera doan**, baina aurrez izena eman behar da
**Izen-ematea:** 012 telefonoan, urtarrilaren 9tik 12ra. Haurtzaindegi zerbitzua izanen da, aurrez eskatzen bada
**Info +:** 634 51 53 84 / euskara@berriobeiti.eus



# PROGRAMAZIOA URTARRILA 2024

## 17 ASTEAZKENA

### KAFE TERTULIA

**Hizkuntza-ereduak eta euskaraz eskolatzako aukera**

UDALEKO EUSKARA TEKNIKARIA

Informazio saioa da, laster seme-alabendako hizkuntza-eredua aukeratuko duten eta euskaraz eskolatzeko aukera baloratzen ari diren gurasoendako.

**Berriogoitiko Haur Eskola**
**Ordua:** 16:30
**Jarduera doan**, baina aurrez izena eman behar da
**Izen-ematea:** 012 telefonoan, urtarrilaren 11tik 16ra
Haurtzaindegi zerbitzua izanen da, aurrez eskatzen bada
**+ info:** 634 51 53 84
euskara@berriobeiti.eus

## 19 OSTIRALA

### IPUIN-KONTALARIA (gaztelaniaz)

SERGIO DE ANDRÉS



**Artikako Liburutegi Publikoa**
**Ordua:** 18:00
**Publikoa:** 4 urtetik gora
**Sarrera:** doakoa, baina gonbidapena behar da. Urtarrilaren 18tik (osteguna) banatuko dira liburutegi ordutegian

## 20 LARUNBATA

### GAZTEENDAKO MAHAI-TENIS TXAPELKETA



**Artigune III (Artika)**
**Ordua:** 16:30
**Izen-ematea:** sare sozialen bidez, @berrioplanodeporteyjuventud bezperara arte pribatu bat bidaliz
**Adina:** 12-16 urteko gazteak

## 27 LARUNBATA

### PICKLEBALL, ATE ZABALEKO EGUNA

Ikasi kirol berria jokatzen, padelaren antzekoa da, eta sekulako arrakasta izaten ari da. Antolatzailea Nafarroako Pickleball Federazioa da eta familiei eta helduei dago zuzendua (8 urtetik gora). Lau pista izanen ditugu eskura, pilotalekuan banatuta, eta behar den materiala eramanen dugu.



**Artikako pilotalekua**
**Ordua:** 18:00 - 19:30
**Izen-ematea:** ez da eman behar
**Antolatzaileak:** Artikako Kontzejua eta Nafarroako Pickleball Federazioa

Zatoz!

# PROGRAMAZIOA OTSAILA 2024

## 02 OSTIRALA

### IBILALDI OSASUNGARRIA




**Bizitza aktiboa**

“Ibilaldi osasungarriak” programa. hilabete bakoitzeko lehen ostiraletan.

**Berriobeitiko Kontsultategitik**
**Ordua:** 10:00
**Izen-ematea:** ez da eman beharrik

## 02 OSTIRALA

### IPUIN-KONTALARIA (gaztelaniaz)

SERGIO DE ANDRÉS



**Artikako Liburutegi Publikoa**
**Ordua:** 18:00
**Publikoa:** 4 urtetik gora
**Sarrera:** doakoa, baina gonbidapena behar da. Otsailaren 1etik (osteguna) banatuko dira liburutegi ordutegian

## 03 LARUNBATA

### PICKLEBALL, ATE ZABALEKO EGUNA



**Berriobeitiko pilotalekua**
**Ordua:** 18:00 - 19:30
**Izen-ematea:** ez da eman behar
**Antolatzaileak:** Berriobeitiko Udaleko Kirol eta Gazteria Zerbitzua eta Nafarroako Pickleball Federazioa

Zatoz!

## 04 IGANDEA

### ANTZERKI DIZIPLINA ANITZA (gaztelaniaz)

**“La fábula de la ardilla”**

LA BALDUFA

Triku handia lasai ederrean bizi da haritz handi baten itzalpean eta beretarrak zaintzen ditu bere mundu-zatitxoaz gozatu bidenabar. Behin batean, ordea, katagorri atsegin, bihurri eta jostalari bat iritsi, eta bake giroa hautsiko da. Bizikidetza ez da gozoa izanen. Trikua zaputza eta babeslea da; katagorria, berriz, jakin-minez bizi da eta gauzak partekatu nahi ditu. Izenburuak dioen bezala, alegia baldin bada, bukaeran ikasbidea izanen du. Lanak ezberdintasunaz eta mestiza-jeaz hausnartzea, eta haietan sakontzea proposatzen digu.

**María de Maeztu Kultur Etxea (Artika)**
**Ordua:** 18:00
**Prezioa:** 6 € aurrez / 5 € leihatila
**Publikoa:** familientzat 3 urtetik gora
**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua



## 09 OSTIRALA

**IPUIN-KONTALARIA** (euskaraz)

VENTURA RUIZ



**Artikako Liburutegi Publikoa**
**Ordua:** 18:00
**Publikoa:** 4 urtetik gora
**Sarrera:** doakoa, baina gonbidapena behar da. Otsailaren 8tik (osteguna) banatuko dira liburutegi ordutegian

## 11 IGANDEA

**ANTZERKIA FAMILIENTZAT** (euskaraz)

### "Onin eta antzerkiaren misterioa"

TDIFERENCIA






**María de Maeztu Kultur Etxea (Artika)**
**Ordua:** 18:00
**Prezioa:** 6 € aurrez / 5 € leihatila
**Publikoa:** familientzat 5 urtetik gora
**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua

Familiendako ikuskizuna da euskaraz, Ibor Martinen "Oninen abenturak" literatur bilduman oinarritua. Idazleak bere lekua hartua dauka estatuko thrillerrean bere zaletasunei esker: bidaiatu, idatzi, deskribatu. Onin (Onintza) da serie horretako protagonista.

Oraingo honetan, Oninek eta haren lagun taldeak txangoa eginen dute Artikara, bertako antzokia ezagutzeko asmoz. Behin herrian daudela, Jaione irakasleari jaramonik egin ez, eta galdu eginen dira, abentura eta bizipen ugariz gozatuta.

## 17 LARUNBATA

**GAZTE ATERALDIA BOLATOKIRA**



**Ateraldia Artigune IIItik (Artica)**
**Ordua:** 16:30
**Prezioa:** 3 €
**Izen-ematea:** izen-ematea eta ordainketa Artigune IIIko gaztegunean otsailaren 10era arte (larunbata)
**Adina:** 12 urtetik gora

Zatoz!

Atsalde pasa joanen gara! Artikako Gaztegunean elkartuko gara, handik bolatokira billabesaz joateko.
Askaria eta partidak prezioetan barne!

## 17 LARUNBATA

### ZENDEAKO INAUTERIA



**Berriobeitiko pilotalekua**
**12:30** Pregoia udaletxetik
**12:30** Kalejirak erraldoiekin
**14:30** Herri bazkaria pilotalekuan
**16:30** Herrien emanaldiak
**17:30** Dantzaldia
**20:00** Kontzertua
**22:00** Kontzertua edo DJa



## 24 LARUNBATA

### KONTZERTUA

ETXARRI ARANAZKO ABESBATZA

**María de Maeztu Kultur Etxea (Artika)**
**Ordua:** 19:00
**Prezioa:** 6 € aurrez / 7 € leihatila



Sari asko jasotakoak dira estatuan nahiz nazioartean, eta errepertorio zabal-zabala lantzen dute, hots, Errenazimendutik musika garaikidera bitarte, baina bereziki klasikoa, erromantikoa eta XX. nahiz XXI. mendeak jorratuta genero guztietan: sakratua, profanoa, dela a capella, dela lagundurik. Halaber, herrialde askotako eta euskal folkloreko lan tradizionalak ematen dituzte. Gaur egun, 45 lagun dira, Alicia Armendarizek zuzenduak.